



Gaurtik aurrera Alegian AHTren aurkako akanpada

LANGAURRE ▶ Hilaren 31 bitarte
ekitaldi ugari izango dira
Langaurre zelaian

EKITALDIAK ▶ Kalejira, bazkaria,
hitzaldia, asanblada, afaria eta
trikitixa izango dira gaur ▶ 5



Ateka Beltza okupatu eta erabiltzen hasi dira gazteak

LEITZA ▶ Herenegun eguerdiz Leitzako gazteek Ateka Beltza etxea okupatu zuten eta erabiltzen hasi dira. Oraingo egokitze lanetan ari dira eta aurrera begira ekintza desberdinak antolatu nahi dituzte. Gazteek Udalarari «aspaldi» eskatu zioten erabiltzeko txoko bat, aktibitateak prestatu eta gazteen arteko harremanak

lantzeko. Ateka Beltza gizarte zentroa egitearekin ados agertu ziren gazteak, baina «hori egiten zen bitartean, leku bat erabiltzeko eskaria» egin zuten. Urtebeteren ondoren erantzunik ez dutenez jaso, Udalaren jarrera kritikatu eta bere kabuz «zerbait egiten hastea» erabaki dute gazteek. JAIONE ASTIBIA ▶ 7

TOLOSA ▶

UNIMAKo kontseilua Tolosan izango da

2006ko amaieran;
«erronka handia» da
CIT-TEarentzat ▶ 2

TOLOSA ▶

Paleta txapelketako lehen fasea, amaitzear

Gaur jokatuko dira
azken partiduak
Berazubin ▶ 3

TOLOSALDEA ▶

Ernioaldeko Udaltaldea 21en diagnosia

Zazpi udalerriek
parte-hartzea nahi
dute ▶ 4



UDA HONETAN JANTZI EZAZU
HITZAREN KAMISETA

SALGAI HITZAREN egoitzan eta

OSKI GAZTEA

Emeterio Arrese, 5 • Tel.: 943 65 56 21
TOLOSA

KULTURA ▶

CIT-TEEK «erronka handia» du aurrean: UNIMAKo kontseilua

Nazioarteko Txotxongiloaren Batasuneko kontseilua Tolosan egitea erabaki dute elkarteko komite exekutiboko kideek ahobatez; 2006. urte bukaeran izango da

IRATXE ETXEBESTE

UNIMA, Nazioarteko Txotxongiloaren Batasuneko kontseilua Tolosan elkartuko da datorren urtean, 2006an. Halaxe adierazi du berriki Tolosako Nazioarteko Txotxongilo Jaialdiaren zuzendari Miguel Arretxe. Lau urtetik behin lurralde ezberdin batean elkartzen den kontseilua Amerikako Estatu Batuetako Atlanta hirian izan zen azkenekoz, orain hiru urte eskas. Orduan bezala, mundu osoko txotxongilgileak elkartuko dira hurrengo urtean herrian. Guztiak ere zeregin bera dutenak dira: «txotxongilo artearen hedapena eta sustapena» bermatzea.

2006ko kontseilua Tolosan izatea proposatu zuen Espainian UNIMAK duen ordezkariak, eta elkarteko kideek onartu egin zuten proposamena. Hortaz, Tolosako Nazioarteko Txotxongilo Jaialdiaren 24. edizioarekin batera ospatuko da mundu osoko txotxongilgileen eta titiriteroen batzarra hurrengo urtearen bukaeran. Azaroaren 25etik abenduaren 3ra izango da aurrean txotxongilo jaialdia, eta kontseilua osatuko duten kideak ere egun horietakoren batean bilduko direla aurreratu dute UNIMAKo ordezkariak, nahiz eta oraindik ez duten horretarako egun zehatzik erabaki.

UNIMAKo komite exekutiboko kideek ahobatez onartu dute berriki 2006an Tolosa elkarte horren bilgune izateko proposamena. Croaciako Sibenichirian egin zuten proposamen hori onartzeko batzarra, eta CIT-TEE, Tolosako Ekinbide Etxeko ordezkariak «erronka



Mundu osoko txotxongilo onenak ekarri nahi dituzte jaialdiko arduradunek herrira; irudian, Indiakoak. i. e.

handi» gisa hartu dute erabakia. Miguel Arretxe da Tolosako Ekinbide Etxeko arduradun eta Tolosako Nazioarteko Txotxongilo Jaialdiaren zuzendari Idoia Otegiarekin batera, eta bere hitzetan, «CIT-TEEK hartuko ditu bere gain kontseilu horietako beharko diren bitartekoak Espainiako UNIMA Federazioarekin batera». Bi elkarte horiek izango dira, beraz, elkarlanean, ekitaldia diruz lagunduko dutenak eta biltzarerako beharrezko azpiegituren eta antolaketa lanen ardura hartuko dutenak.

«Oso pozik gaude»

1929an Pragan (Txekiar Errepublikak) sortu zuten UNIMA, eta Gobernu kanpoko Erakundearen artean, arte eszenikoen zerikusia duten munduko elkarteetan zaharrena omen da. UNESCOren laguntza du, eta Frantziara dago elkarte ho-

rren egoitza nagusia. Mundu osoan zabalduko nazio mailako 66 zentzoren bitartez, sei mila kide baino gehiago biltzea lortu du UNIMAK.

Massimo Schuster frantziarra da UNIMAKo lehendakaria, eta 2000. urtetik Miguel Arretxe da idazkari orokorra; urte hartan izendatu zuten lehenengoz, eta 2004an berriz ere hautatu zuten kargu horretarako. «Oso pozik gaude 2006an Tolosa kontseiluaren egoitza izango dela onartu dutelako», adierazi du Arretxe.

Hautaketa prozesu horretan «dehiakide gogorra» izan du Tolosak: Frantziako Charleville Mezieres herria. «Herri horretan dago UNIMAREN egoitza ofiziala, eta, horregatik, aukera handiagoa izango zuela pentsatzen genuen hasiera batean. Maila goreneneko txotxongilo jaialdiak antolatzen dituzte han, gainera, eta horrek gure herria atzean utziko zuela este-

genuen», azaldu dute Arretxe eta Otegi: «Faborito gisa zegoen Frantziako herria, eta han beharrezko kontseilua gurean ospatzea garaipen handia da, denontzat albiste ona izateaz gain».

Titirijai-ren hurrengo edizioa prestatzen ari dira Idoia Otegi eta Miguel Arretxe burubelarri. Txekiar Errepublikako hiriburutik itzuli berri dira, eta 2006ko jaialdia antolatzen hasteko bidean, Pragan Antzerkiaren Institutuko ordezkariekin izan dituzten hartuemanak «oso baliagarriak» izan zaizkiela esan dute. Udako oporaldiaren ostean, iraila aldera, berriz, Errusiara bidaiatuko duela iragarri du bikoteak. Izan ere, «arte eszenikoetan onenak ekarri nahi ditugu Tolosara aurtengo eta datozen urteetako Nazioarteko Txotxongilo Jaialdirako». Errusiatik, Txinatik eta Txekiar Errepublikatik, besteak beste.

MENDIA ▶

Gaur abiatuko dira Huescara Oargi elkartekoak

Oargi mendi elkarteak hiru egunerako antolatutako irteeran izena eman dutenak gaur arratsaldean abiatuko dira Huescako (Espainia) Escarrillara. Bihar Pico Midi D'Ossau (2.884 m.) mendia igotzea eta Gorge du Soussoneou arroila jaistea izango dute aukeran; igandean Pico Blaitous (3.144 m.) edo Gorge du Broset arroila eta astelehenean Gorge du les Chutes arroila. Informazio gehiago nahi izanez gero deitu 637 830 380ra.

KIROLA ▶

Usabal kirolegi berrirako monitorea

Irailan zabalduko duten Usabal kirolegi berrirako monitorea behar direla iragarri dute bertako arduradunek. Zehazki, ur sorosle titulua dutenak behar dituzte, eta igeriketa monitorea titulua izatea eta aretoko ariketak —aerobika, gimnastika, muskulazioa...— emateko gai izatea eskatzen dute horretarako. Izena emateko 943 69 43 22 telefonora deitu, edo Villabonako kirolegira (Kale Nagusia, 72) edo villabona@serdepor-kirolzer helbidera curriculum-a bidali abuztuaren 25a baino lehen.

KIROLA ▶

Elkarte eta klubei zuzendutako diru laguntzak abian

Tolosako kirol elkarte eta klubaren egiturak garatzeko diru laguntza arruntak eskatzeko epea hilaren 31n bukatzen da. Udaletxeko erregistroan dira eskaerak egiteko bete beharreko eranskinak.

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000
etxetara

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik

PALA ▶

Sailkapen faseko azken pala-kolpeak

Gaur amaituko da Tolosa CFren Pala Txapelketako lehen fasea, Berazubín

LEIRE MONTES

Azken txanpara gerturatzen ari da Tolosa CFren 37. Pala Txapelketa. Sailkapen faseko azken pala-kolpeak dira egunotakoak. Erredakzio hau ixterakoan, hiru partida ziren jokatzekoak Berazubín. Eta gaurko biekin, hain zuzen ere, amaituko da lehen fasea.

Lontxok eta Nazabalek Zabaletaren eta Urdanpiletaren aurka jokatuak eta Apeztegia-Maizaren eta Otermin-Goitiaren artekoak itxiko du gaur sailkapen fasea. 19:00etan hasiko dira partidak, Berazubíko frontoian.

Hamabi bikote lehiatu dira 37. edizioan, bi multzotan banatuta. Lau besterik ez dira pasatuko finalerdietara. Asteazkenean, hilaren 27a, jokatuak dituzte finalurrekoak: A multzoko lehenak B multzoko bigarrena izango du aurkari lehenik, eta ondoren B multzoko lehena eta A multzoko bigarrena lehiatuko dira.

Final handia datorren ostira-lean, hilaren 29a, izango da, 19:00etan. Ondoren, lagunarteko afarian elkartuko dira parte-hartzaile guztiak.



Txapelketaren partida bat, Berazubíko frontoian. NOELIA LATABURU

EMAITZAK ▶

Erredakzio hau ixterakoan, jokoan ziren sailkapen faseko hiru partida. Honakoak dira azken egunotako emaitzak:

Hilaren 18a, astelehena.

▶ Zabaleta-Urdanpileta 24 / Balerdi-Artola 30.

▶ Goitia-Otermin 30 / Agirre-Egilaz 15.

▶ Sarasua-Txapartegi 30 / Bengoa-Bengoetxea 20.

Hilaren 19a, asteartea.

▶ Apeztegia-Maiza 30 / Yugeros-Aldazabal 26.

▶ Sarasua-Txapartegi 30 / Eizmendi-Arandia 29.

Hilaren 20a, asteazkena.

▶ Landa-Huegun 30 / Lakunza-Agote 27.

▶ Lontxo-Nazabal 30 / Sarasua-Txapartegi 21.

▶ Eizmendi-Arandia 27 / Benga-Bengoetxea 30.

Antolatzaileak pozik dira txapelketak izan duen erantzunagatik, eta zaleei dei egin die azken txanpa honetan ere Berazubira joan daitezen, «kirolariak animatuz, festa giroan parte hartzeko».

ZEZENAK ▶

Denboraldi amaierako afaria egin berri dute

Zezen-plazako langileak eta Sarot Asesores S.L. enpresakoak elkartu zituen hitzorduak



Zezen-plazako langileak eta enpresako ordezkariak, afarian. HITZA

L. MONTES

Tolosako zezen-plaza kudeatzen duen Sarot Asesores S.L. enpresako ordezkariak eta zezen-plazako langileak denboraldi amaierako afarian elkartu ziren, asteartean, Fronton jatetxean. Jokin Bildarratz Tolosako alkatea, Jokin Monfort Festa teknikaria eta Jokin Ansorena Kultur teknikaria ere izan ziren bertan.

Zezen-plazako presidente Antonio Hernandezek «guztionez kolaborazioa eskertu» eta «erronka berriei begira jartea garrantzitsua» dela adierazi zuen. Hala, denboraldia

amaitu berria den arren, hurrengo urtera begira jarri ziren dagoeneko langileak eta enpresako ordezkariak.

Jose Felix Gonzalez Salas enpresako gerenteak eta Antonio Picamills koordinatzaileak «datorren urtean, Tolosaren 750. urteurrena dela eta, herriak maila handiko zezen feria» izango duela ziurtatu zuten afarian: «Jaialdietara joan den jende guztiari esker eman nahi dizkiogu. Denon artean hobetzen lortuko dugu urtero hobetzen joatea, eta, era berean, Tolosako zezen-plaza merezi duen lekuan jarzea».

ZIKLOTURISMOA ▶

Atsedena hartu aurreko azken bi irteerak

Marraskilo taldeak irteerak antolatu ditu etzi eta hilaren 31n; abuztuan, oporrak

L. MONTES

Denboraldi hasieran zehaztutako programarekin jarraitzen du Marraskilo taldeak. Egutegiaren arabera, igandero egiten dituzte irteerak zikloturistek. Abuztuan atsedena hartuko dute, baina oporretara joan aurreko bi asteburuetarako ere txangoak antolatu dituzte.

Hortaz, etzi izango da lehena. Tolosatik abiatu eta Usurbil aldera joko dute taldekoek, Zarauztiik Azpeitialdera hartu, Azpeititik Mandubia igo, eta Besainera jaitsita itzuliko dira Tolosara. Guztira, 90 kilome-

troko ibilbidea izango da igandekoa. Joan nahi duenarentzat zehaztu dute dagoeneko irteera ordua: 08:00etan, taldearen egoitzatik (Berazubi).

Hilaren 31n, berriz, 95 kilometroko ibilbidea osatuko dute. Tolosatik Lizarrusti igo, Etxarri eta Altsasu pasatu, eta Otzaurtetik Zegamara helduz egingo dute Tolosara itzultzeko bidea. 08:00etan abiatuko dira, taldearen egoitzatik.

Oporren ondoren, iraileko lehen asteburuan ekingo die berriro irteerei. Urriaren 2rako, bestalde, Marraskilo taldearen jaia iragarri dute.

GIMNASTIKA ▶

Denboraldi arrakastatsuari agur esan diote Tolosakoek

Mutilak ere ariko dira taldean 2005-2006 ikasturtean, lehendabiziko aldiz

L. MONTES

Arrakasta handikoa izan da denboraldia Tolosa CFko gimnastika erritmikoko taldearentzat. Ikasturtea behar bezala amaitzeko, ikuskizun aparta eskaini zuten Tolosako gimnastek Donostian: hain zuzen ere, taldeko 14 neskek Donosti Cup futbol torneoaren inaugurazio ekitaldian hartu zuten parte.

Bestalde, taldekoek 2005-2006 ikasturterako izena ematera animatu dituzte herriko haurrak eta gazteak. Mutilak ere izango ditu taldeak irailetik aurrera, lehendabiziko aldiz.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212

▶ Anoeta-Alkiza-Hernalde.

Medikua: 65 23 39

▶ Asteasu. Medikua: 692423

▶ Baliarrain. Medikua: 889003

▶ Berastegi-Elduain. Medikua:

683361

▶ Bidegoian. Medikua: 681134

▶ Ibarraldea. Osasun ebea:

672411

▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329

▶ Irura. Osasun zentroa: 690720

▶ Leizta. Osasun z.: 948 510800

▶ Orendain. Medikua: 655595

▶ Oresa. Medikua: 682228

▶ Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amaroako dispen.: 672637

▶ Asunzion klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdia)

▶ DYA: 672536

▶ Gurutze Gorria: 674888

▶ Villabona. Anbulat.: 006970

▶ Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930

Garraioak.

▶ Renfe: 902 24 02 02

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitzarano autob.: 948 221015

▶ Taxia: 670420

▶ Taxia (Leizta): 608 873016

Besterik.

▶ Ertzaintza: 538820

▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858

▶ Tolargi: 650016

▶ Iurrarmendi egoitza: 670325

▶ Tolosa gasa: 675320

AGENDA 21 ▶

Iraunkortasunaren bidean

Ernioaldeko Udaltalde 21 osatzen duten zazpi udalerririk diognostiko fasean murgilduta daude egun

IMANOL GARCIA

Ernioaldeko Udaltalde 21 iazko urriaren 18an osatu zuten Tolosaldeko zazpi udalerririk: Aduna, Anoeta, Asteasu, Hernialde, Irura, Villabona eta Zizurkil. Udaltalde horren helburua udalerririk bakoitzean agenda 21 garatzea da. Bere koordinatzailea den Itziar Eizagirrek azaldu duenez, bi urrats nagusi ditu prozesu horrek: «bata diognostikoa da eta beste ekintza plana».

Dagoeneko zazpi udalerririk diognostiko fase horretan daude murgilduta. Udaletxe batean jorratzen diren arlo ezberdina datuak jasotzen dira: bai alor ekonomikoak, bai sozialak, bai ingurumenekoak. «Orain arte normalean ideia orokorra zen tokiko agenda 21a ingurumenarekin bakarrik zerikusia zuen gauza bat zela, baina ideia hori oker dago», dio Eizagirrek. «Tokio

agenda 21-ek Udalaren kudeaketa eredu aldatzeko helburu: iraunkortasunaren ikuspegi eta herritarren partaidetza barneratuz».

Diognostikoa egiteko aholkularitza enpresa bat dago kontratatua eta galdetegi bat dute prestatuta. Horren inguruan datu batzuk ateratzen dituzte eta horiekin udalerririk argazki bat osatzen dute.

Herritarren parte-hartzea

Irailean parte-hartze prozesuak jarriko dira martxan. Bi mailatan aurreikusten dira: alde batetik Udalaren barnekaldera begira, bai teknikariek, bai ordezkari politikoekin eta bai herritarrekin mahai teknikoak osatuko dira, diognostikotik atera diren datuak eztabaidatzeko; bestalde, foroak sortuko dira eta bertan herritarrei zabalduko zaie deialdia beraien iritziak eta ekarpenak



Ingurumen egunean antzerkia antolatu zuen Ernioaldeko U21ek. HITZA

egiteko. Horrela, behin betiko diognostikoa otsaila edo martxoan inguruan osatuta izango da.

Parte-hartzea bultzatzeko, uztailean zehar udal bakoitzetik gutunak helerazten ari zaizki biztanleei prozesuaren berri emateko. Zazpi alkateek sinatu berri duten Aalborg-eko gutunaren mamari eta orokorrean agenda 21ari buruz informatuko dute eta herritarrei parte hartzerako gonbidatuko dituzte.

Iraunkortasuna gero eta gehiago entzuten den hitza da, baina, agian, oraindik biztanleriak ez du oso barneratuta

kontzeptu hori. «Alde batetik bizi-iraupena eta ingurumenarekiko errespetua lortu nahi da, baliabide naturalak zaindu gerora begira, hau da eperik gabeko denbora baterako; bestalde, zuzentasuna eta justizia soziala lortzea, hots, jendearen egoera eta ongi-izatea kontuan izan behar da eta ez bakarrik zure herrian, baizik eta munduan zehar; ekonomia-ri dagokionez, beste eredu ezberdin bat proposatzen du, ekonomia neoklasikotik at», zehazten du Eizagirrek iraunkortasunari buruz hitz egitean. «Hiru elementu horiek, inguru-

mena, ekonomia eta pertsonen egoera erlazioaturik daude zeharo».

Tokiko agenda 21aren helburu horiek lortzeko zer den beharrezkoa galdetzean, «aldez aurretik kontzeptua ulertu» erantzuten du Ernioaldeko Udaltalde 21eko koordinatzaileak. «Ingurumenarekin bakarrik lotuta dagoen zerbait delaren ideia hori kendu behar zaio agenda 21ari. Berrikuntza dakarren herreminta bat da, baina oso era zabalean ikusi behar den: bai administrazioaren berrikuntzarekin, ekonomia-aren berrikuntzarekin, gizarte-aren berrikuntzarekin... Orain arte izan ditugun ereduak ez dira baliagarriak eta ordezkari politikotik eta herritarrek auzartak izan behar dute aldaketa horiek benetan posible egiteko».

Udaltalde 21ek zenbait ekintza antolatu ditu kale mailan, Ingurumenaren eguneko jolasak eta antzerkia, adibidez. Irailean ere ekitaldirik egingo dituzte mugikortasun aste dela-eta. Martxan dago, bestalde, agenda 21-ari buruzko informazio telefonoa, 943 69 25 36 zenbakia, hain zuzen.

VILLABONA ▶

Santio jaietako jubilatuen bazkarirako gonbidapenak

ERREDAKZIOA

Biltoki jubilatuen elkarteak deialdia egiten die jubilatuei zein pentsiodunei bulegotik pasatzeko Santio jaien baitan hilaren 28an egingo den bazkarirako gonbidapenak jasotzeko. Gaur da horretarako azken eguna.

VILLABONA ▶ IX. GARAGARDO AZOKA

Irrintzikoak «oso gustura» azokaren arrakasta mantendu egin delako

12.000 garagardo litro eta 3.000 ukondo atera dituzte azokak iraun duen lau egunetan

I. GARCIA

Irrintzi elkarteak antolatutako garagardo azokak bederatzigarren edizioa bete berri du. Lau egunetan zehar herriko,

eskualdeko eta baita urrutietatik etorritako jendeak nahi adina garagardo dastatu ahal izan du, aukeraz zeuden jakiak dastatzen zituen bitartean.

Gero eta garagardo azoka gehiago daude, eta eskaintza zabal horrek izan dezake eraginik azokan arrakasta. Hala ere, Villabonako garagardo azoka arrakasta mantendu du eta Irrintzi elkarteak antolatzailerik gustura daude aurten go azoka nola joan den ikusita. «Lehen urteko antzeko zenbakiak izan ditugu, zertxobait gehiago agian», azaldu dio HITZARI antolatzailerik lanetan arituen Agustin Laskurainek. «12.000 litro garagardo eta 3.000 ukondo inguru atera ditugu. Ikusita beste garagardo azokak behera egin dutela, In-



Giro ederra izan da garagardo azokak iraun duen lau egunetan. i.e.

txaurrundokoa kasu, oso pozik gaude».

Salmentak ez ezik, giroa ere oso ona izan da. «Ez da gertatzen txarrik izan ohi bezala eta alde horretatik ere oso gustura gaude», esan du Laskurainek. Aurten garagardo bereziak eta arrunta ez dituzte bereiztu eta guztiak 3 eurotan saldu zituzten. Aldaketa horrek ez duela kezarik jaso dio Laskurainek: «Arruntak deitzen genituen batzuk bereziak dira berez, eta nola berezien prezioa ez dugun igo, eta antolatzailerik

behintzat ez dugu jaso kexarik».

Aipatzekoa da ere garagardo azokaren antolakuntzan eta lanean parte hartzen duen jendetzak. «Guztira 118 lagun aritu gara lanean. Horietatik 90 elkarteko kideak dira eta besteak familiakoak eta lagunak», azaldu du Laskurainek. Guztiak, bezeroekin batera, noski, lortu dituzte aurtengo helburuak eta datorren urteko 25. urtemugako ekitaldi bereziak prestatzeko baliabideak gehitzea.

askatasuna! PRESO ETA IHESLARIEN ALDEKO JANTOKIA

Zaloz Billabonako festetan preso eta iheslariekin afaltzera!

Uztailaren 24tik 31ra arratsaldeko 8etatik 12etara Berdura plazan

ALEGIA ▶ GIZARTEA

Dena prest AHTren aurkako akanpadari hasiera emateko

Gaurtik hilaren 31 bitarte ekitaldi ugari burutuko dituzte Langaurreko zelaian, «proiektu txikitzaile hau» arbuizatzeko



AHT gelditu elkarlanean taldeak iragan maiatzean Anoetan antolatutako azoka. HITZA

NOELIA LATABURU

Gaur hasi eta hila amaierara bitarte Langaurre zelaia Abiadura Handiko Trenaren (AHT) aurkako aldarrikapen gune bilakatuko da. AHTren aurkako Asanbladak urtero antolatzen du akanpada hau; aurtun «garrantzia berezia» eman nahi diote proiektuaren hurbiltasuna dela eta. Izan ere, Gasteizko

Gobernua udazken honetarako iragarri du lanen hasiera. «Aurten obrak inoiz hasi ez daitezten datozen hilabeteetarako ere mobilizazioak prestatuko ditugu», azaldu dute antolatzaileek. Bestalde, «AHT bezalako proiektu txikitzaileak ezartzen dituen garapen politika eta gizarte ereduari aurre egiteko elkargunea izan nahi du akanpadak».

Uztailaren 31ra bitarte luzatuko den kanpaldiak hamaika ekitaldi izango du aukeran, hitzaldiak, eztabaidak, tailerrak, mendi martxak, protesta ekimenak, ikuskizunak, kontzertuak eta umeen txokoak, besteak beste. Halaber, «AHTk eragingo dituen kalteak gertuago ikusteko aukera izango dugu», izan ere, Langaurre azpitik egitasmoak kilometroko bateko

EGITARAUA ▶

Gaur hasiko da AHTren aurkako akanpada Langaurren eta 10 egunez ekitaldiz beteriko agenda izango da.

GAUR

10:30. Kalejira tailerra.
14:00. Bazkaria.
16:30. Hitzaldia: *Liberte Jean Marc Robellan* (Accion directako preso). Hizlaria Michel (Barna).
19:30. Hasierako asanblada.
21:00. Afaria. Gero, trikitixa.

BIHAR

10:30. Umeentzako tailerra Tzialarekin eta erresistentzi tailerra Itoizko solidarioekin.
14:00. Bazkaria.
16:00. Asanblada.
17:00. Mural pintaketa.
19:00. Kalejira Alegian.
21:00. Zahagiardoa.
22:30. Basque Country of faraons, Gaizkiñe eta Acido C musika taldeen Bulebarrean kontzertua.

tunela eraiki nahi du. Gure eskualdean aipatu kilometro honetaz gain, Euskal Y-arentzat beste 12 eta Nafarroarekiko loturako beste 13 kilometroko tunelak «zulatuta utziko lukete Tolosaldeko ingurumenak».

Antolatzaileek jendetza espero dute, «euskal biztanleria kontzientzia handia baitu arazo honen gainean». Dena den, AHTren aurka dagoen edonori deialdia luzatu nahi diote, Alegira hurbildu daitezten, «elkarrekin protesta egiteak indarra suposatzen duelako». Lehen eguna dute gaur eta dagoeneko dena martxan dute AHTren aurkako asanbladakoek. Tailerrak, bazkaria, hitzaldiak eta trikitixak alaituriko gau giroa izango dira protagonista nagusiak.

AMEZKETA ▶

Jardunaldi berria XVI. Joxean Tolosa Txapelketan

Kadeteen, gazteen eta nagusien partidak izango dira gaurtik igandera bitarte

N. LATABURU

Amezketako XVI. Joxean Tolosa Txapelketak jardunaldi berria irekiko du gaur gaueko 22:00etatik aurrera. Guztietan, kadeteak, gazteak eta nagusiak ariko dira.

Hauek dira gaur jokatuko diren neurketak: kadeteetan, Narbarte (Goizueta)-Albisu (Ataun); gazteetan, Iraola (Añorga)-Zubillaga (Andoain) eta nagusietan, Aranburu (Oiartzun)-Albarez (Hernani). Bihar arratsaldekoak, berriz, kadeteak, Kortaberria (Olazti)-Juanenea (Txaruta); gazteetan, Urrutia (Txaruta)-Legarreta (Urnietia) eta Zelaia (Lizartza)-Pina (Burlada); eta nagusietan, Yubero (Intxaurren)-Tainta (Erreka). Gaueko norgehiagoka tandan hauek izango dira: kadeteetan, Garmendia (Abaltzisketa)-Sarasola (Añorga); gazteetan, Telleria (Albiztur)-Beloki (Leitza); nagusietan, Etxebeste (Txaruta)-Aldazabal (Loiola).

Etzi, igandea, gazteek hiru partida jokatuko dituzte, 16:30etik aurrera: Azpitarte-Atxotegi, Senperena-Arkotxa eta Garzia-Azkune. Azken partidak nagusien mailari dagokio eta Martinez eta Etxegaraia ariko dira nor baino nor.

Guztia hutsaren truke

Orain **0**€* -ren truke
eskuratu LG 2300, Motorola V547 edo Samsung X640 bat.

Eta gainera...
Hitz egin doan abendura arte**

* Leihoreen eta Hautaketaren bezeroentzako, ondoren ordaintzekotik aurretik ordaintzekora pasatutako bezeroentzako eta etxeko telefonia mugikorreko operadore nazional batek etorrita alta eman duten bezeroentzako mugikorraren PSPa, betiere 2005/08/31 baino lehen kontratatzen badu ondoren ordaintzeko etxeko zerbitzua 6 €ko kontsumo minimoarekin, eta 18 hilabetez irauteko konpromiso hartzen badu. Muga: 7.000 unitate.

** Sustapen horiek 2005/08/31ra arte balio du. Estatuko deliak Euskaltel/Amenaren mugikorretara 0 €/min-en truke, 2005eko abenduaren 23ra arte, Altxa-kuota: 6 €, Fakturazio-ziklo bakoitzeko muga: 2.000 minutu. Delaren ezartze-kostu sartu gabe. Sustapen hau ez da bateragarria beste sustapen hauekin: Nire Gogokoena, 5 a 5 zerbitzua, 3x2 kontratua, Duo Kontratu, Libre eta 3 zent./min tarifarekin deituko sustapenak (sustapen horiek behin betiko galduko lirateke). Galdetu sustapen honen baldintzei buruzko informazioa saltokietan edo 900 840 840 telefono-zenbakian.



San Francisco, 19
Tolosa
Tel.: 943698126

IBARRA ▶ GIZARTEA

Magrebeko ohiturak hobeto ezagutzeko aukera bihar, Irazkik antolaturiko festan

17:00etatik aurrera egingo da Festa Magrebiarra Ibarako plazan; henna, ogia, idazkera eta sabel dantza tailerrak, afaria eta Marokoko musika izango dira

IÑIGO TERRADILLOS

Bihar egingo dute Ibarako San Bartolome plazan Festa Magrebiarra Irazki elkarteak antolatuta Ibarako Udalaren eta Sendi ekintza elkartearen laguntzarekin. Tolosan egin zuten lehendabizikoz pasa den urtean, eta aurrean Ibarren egitea erabaki dute. Izan ere, magrebiar jende ugari bizi da bertan, eta hori izan da festa Ibarren egitearen arrazoia.

60 bat arabiar eta musulman bizi dira egun Tolosaldean eta 3.000 inguru Gipuzkoan, pixkanaka handituz doa, beraz kopurua. Mada eta Saad duela 7 urte etorri ziren Tolosara eta Mohamed, berriz, duela 4 urte. Euskaldunekin erlazioztea ez dela beraientzat zaila izan diote, «ateak erraz ireki dizkigute, eta udalek ere laguntza handia eman digute», azaldu dute. «Gainera Euskal Herria behar dutenei gehien laguntzen dutenen herrien artean dago, eta hori kontuan hartu behar da», diote.

Bestalde, etorkinak ez direla soilik lan tresna bezala begiratu behar argi utzi nahi dute,



Eszer-eskuin: Mohamed Jaimen, Saad Malek eta Mada Azras Irazki elkarteko kideak eta Lourdes Azpirotz ibartarra, Festa antolatze lanetan laguntzen aritu dena. IÑIGO TERRADILLOS

kultura eta historia baitakarte beraiekin. Hiru magrebiarrek azaldu dute bertan bizi diren etorkinen artean Irazki elkarte kulturantz osatu zutela. Kanpotik datozenei babesa ematen die elkarteak eta bertakoen eta etorkinen arteko elkarbizitza bultzatzea helburu duten ekitaldiek burutzen dituzte. Kultura, ohitura, tradizio eta historia desberdinak ezaguta-

razi nahi dituzte, era horretara, harremanak errazago egin eta sendotu asmoz. Hain zuzen ere, elkarte horretako Magreb bartzordea arduratu da biharko festaren antolaketaz.

Ikusi eta ikasteko

Festa hauekin jarraitzeko nahia azaldu elkarteak, eta hurrengo Tolosan izango dela

aurreratu dute, azaroan hain zuzen. Biharkoari dagokionez, arratsaldean zehar magrebiar tailerrak antolatu dituzte: emakume marrokiar bat egongo da henna nola egiten den eta gortuzean nola jartzen erakusten eta zer esanahi duen azaltzen; hala nola, sabel dantzaren tailerra ere izango da, eta arabiar ogia egiten irakatsiko dute. Zartagiaren ogia deitzen diote

MAGREBIAR FESTA ▶

EGITARAUA

17:00. Tailerrak: henna, arabiar idazkera, sabel dantza eta ogia egiteko tailerra.

Ondoren. Egindako eskulanekin plaza apainduko dute.

21:00. Afari magrebiar tipikoa: Oilasko eta paxazko couscous-a; haragia, arrautza gogortua eta aranak dituen Tagine; Marokoko gozo tradizionalak eta tea.

23:00. Cheb Mougait taldearen kontzertua eta sabel dantza Irunerren eskutik.

beraiek, labean egin ordez zartagiaren egiten baitute, Azkenik, arabiar idazkera era ikasi ahal-ko da. Tailerren ondoren, afari magrebiar tipikoa dastatzeko aukera izango da: cous-cous-a, haragia, arrautza gogortua eta aranak dituen tajine-a eta Marokoko gozo tradizionalak eta tea prestatuko dituzte.

Afarira joateko txartelak eskuratzeko gaur izango da azken eguna eta 15 euroren truke Ibarako Danon Txokoa, Zubiaurre eta Atari tabernetan, Tolosako Denak eta Orbela tabernetan eta San Frantzisko lokutorioan lortu ahal-ko dira. Afalostean, berriz, Marokoko musika talde bat izango da, eta sabel dantza saioz ere gozatu ahal-ko da, festa goizalderarte luzatuko delarik.

Irazki elkarteak eskualdeko jende guztia eurekin jai hone-ten parte hartzera gonbidatu nahi du, Magrebeko kultura ezagutu dezaten.

iragarki laburrak ▶

LANA

Igeltseroa. 26 eta 35 urte arteko igeltseroa behar da, 2. mailako ofiziala. Fabxada, estaldura eta aldamio montaian aditua. Bere autoa duena. 620 80 01 86. Josebto.
Sukaldaria. Asteburuetarako eta oporren ordezkapena egiteko sukaldaria behar da. Deitu 943 691 933 telefono zenbakira.

EROSGAI

Bizikleta estatikoa. Bizikleta estatiko bat erosiko nuke. 699 18 61 85.

BELAUNTZA ▶ GIZARTEA

Herriko Taberna ustiatzeko lehiaketa egingo dela eman du jakitera Belauntzako Udalak

Proposamenak aurkezteko epea datorren uztailaren 27a izango da

I.TERRADILLOS

Belauntzako Udalak herriko taberna ustiatzeko lehiaketaren deialdi publikoa zabaldu du.

Herriko taberna urtebetez ustiatu ahal-ko da, beste 4 urtera luzatu ahal-ko delarik (asko jota bost urte arte). Oinarrizko errenta edo eskaintzaren oinarria urtean 6.264 (BEZ barne) eurotan ezarri da. Esleipendunak Belauntzako Udalak erabakitzen duen lekuan edo kontuan ordainduko du zenbateko

hau hamabi zati berdinetan eta hilabeteko gutxieneko errenta 522 (BEZ barne) eurokoa izango da. Bermea, berriz, behin-behinekoa: 125,28 eurokoa izango da. Bermearen zenbatekoa errentaren bi hilerokoa izango da, kontratua esleitu den kopurua kontuan hartuz.

Bestalde, Belauntzako udal-tertxean eskuratu ahal-ko dira lehiaketan aurkeztu beharreko agiriak eta baita horri buruzko informazioa. Era berean, agiriak bete ondoren Belauntzako

udal-tertxean aurkeztu beharko dira, edo bertara bidali, Hiribururu, 14, Belauntza 20.491 posta kodera. Argibideetarako telefono zenbakia, berriz, 943 67 43 66 da eta fax zenbakia 943 67 50 39.

Lehiaketan aurkeztu diren artean aukeraketa egiteko orduan, klausula administratibo partikularren pleguaren XII. klausulan ezarritakoaren arabera baloratuko dira proposamenak.

Proposamenak, Udalaren

idazkaritzan, jendaurreko arreta orduetan (goizeko 9:00ak 13:00 bitartean, astelehenean ostiralera arte) aurkeztuko dira, iragarkia Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik kontaktatu hamabost egun naturalen epean, hau da, uztailaren 27a baino lehen. Epea amaite eta hamabosgarren egun baliouduneko irekiko dira eskaintzak udaletxeko batzar aretoan, arratsaldeko ordubetan.

IRIARTE
J A T E T X E A
BERROBI
Ostegun, ostiral, larunbat
eta igandetan, txotx sagardoarekin
TERRAZAKO MENUA: 16 €
Tel.: 943 683 078

LEITZA ▶ GIZARTEA

Ateka Beltza okupatu eta erabiltzen hasi dira gazteak

Ateka Beltzaren erabilerari dagokion gaia «mugiaraztea» dute helburu nagusi; bitartean lehen erabilpena emateko garbiketa eta txukuntze lanetan ari dira



Erabiltzen hasterako garbiketa eta pintaketa lanetan aritu dira. J. A.



Kanpotik nahiz barrendik itxuran jartzen ari dira. LEITZAKO GAZTEK

JAIONE ASTIBIA

Herenegun eguerdiaz gerotzik Ateka Beltza etxea irekita dago: balkoian «okupazioa eskubidea» dion pankarta zintzilik ageri da, «Leitzeko gaztek» izenpearekin eta kanpotik itxuraldatzen hasia ere badago.

Hain zuzen ere, «Leitzeko gaztek» taldeak, Ateka Beltza «behingoz erabiltzen» hasia erabaki zuen eta etxean sartu ziren. Halaxe eman zioten jakitera HITZARI atzokoan. «Aspaldi eskatuta genuen udaletxean, txoko bat guk erabiltzeko. Gazteontzat ekintza desberdinak antolatu ahal izateko, eta horiek aurrera eramanez ahal izateko leku baten beharra dugu, ez dugu biltzeko lekurik ere», azaldu zuten, «gainera Leitzako gazteen arteko harremana landu beharra dagoela ikusten dugu, azken boladan bakoitzak bere lokala hartu du eta elkarrekin isolatuta gaude. Bakoi-tza berera doa eta kito», erantsiz. Beren ustez, honi irtenbidea emateko «derrigorrezkoa» da «gazteontzat intereseko diren gauzak bideratzea, eta gazteen parte-hartze zuzena-

rekin, gainera» eta hori egin ahal izateko «lekuak eta baliabideak eskura izan behar ditugu», baieztatu zuten.

Horrela egin omen zuten eskaera Udalean: «Ateka Beltzaren inguruan Udalarekin eta herriko eragileekin batera izan ziren eztabaida eta inkestetan parte hartu genuen, eta guk ere bat egin genuen, eta gure proposamena ere halaxekoa izan zen, Ateka Beltzaren gizarte zentroa egitearekin; alegia, herriko eragile guztiak leku izanen duten gunea egitearena», adierazi zuten, «hori egiten zen bitartean, ordea, etxe honetan leku bat erabiltzeko eskaria egin genuen», zioten, «baina ia urte bete igaro da ordutik eta ez dugu erantzunik jaso» argitu zuten. Horren harira, Ateka Beltzaren inguruan Udalak izan duen jarrerak «kritika» merezi duela, zioten: «Jazko bilera haiek ezker, ez da gaia mugitu: eginen dugu, baina gero deus ere ez», argudiatu zuten, «ondorioz geroz kabuz zerbait egiten hasia erabaki genuen eta atzo Ateka Beltzara etorri ginen», berri eman zuten.

Gaia berpizteko

Horrekin duten helburu nagusia, «gai hau mugiaraztea» dela azaldu zuten: «Herriko taldeok proposatutako Gizarte Zentro hori, non gazteok ere geure lekua izanen dugun, martxan jartzea». Eta euren iritziz, «lehen mugimendu modura» jotzen zuten, atzo iluntzerako «herriko eragileekin udaletxean deituta» zegoen bilera, berriak ere parte hartzeak omen zirena, eta beren «kekak eta beharrak plazaratzeko» baliatze asmoa zuten han.

Egokitze lanetan

Bitartean, herenegun Ateka Beltza erabiltzen hasi zirenetik, batez ere garbiketa eta pintaketa lanetan ari omen dira. «Garbitu eta itxura alaiagoa ematen ari gara», zioten horretan ari ziren bidenabarrean: «Oporretan gaude gehienak eta jendea etorri da lanera, batzuk goizez, besteak arratsaldez...: eskobatu, hormirudia jarri, pankarta zintzilikatu, lehioak margotu, ormak ere bai... Txukunduko dugu».

LEITZA ▶ KULTURA

Jeiki abesbatzak gaur du emanaldia egitekoa

laz hasitakoari, jarraipena emanez, zinema aretoan 20:30ean izanen da kontzertua

J. ASTIBIA

Jeiki abesbatzak gaur, ostirala, iluntzean, 20:30ean, abestuko du zinema aretoan. Sarrera doan izanen da eta kantua gustuko duen orori egin die bertara joateko gonbitea.

Aspaldiko urteetan isilean egon ondoren, ia egin zuen berragerpena Jeiki abesbatzak, sekulako kontzertua eskainiz. Eta aurten berrito, orduko asmoei jarraituz, bigarren batekin datoz.

Urte guztian zehar, astero elkartzen dira korukideak,

Pontxito Irurtia zuzendari dutela eta denboraldirako prestatutako errepertoria lantzen dute. Azken boladan, ordea, kontzertuaren eguna hurbildu ahala, maizago ere egin dituzte prestaketa saioak, eta zinema-aretoak akustikara ohi-tzeko, bertan bildu izan dira.

Ikasturtean egindako lana erakusteko eguna dute gaur, beraz, Jeiki abesbatzaren, eta gainerakoentzat, berriz, haiek entzunez emanaldiaz gozatzeko. Urtean behin izaki aukera eta horretaz baliatu beharra dago.

LEITZA ▶ IGERIKETA

XVIII. Igeriketa Bilera eginen dute bihar igerilekuan gaztetxoekin

Leitzako Denok bat Guraso Elkarteak antolatu du; 16:30etik aurrera izanen da

J. ASTIBIA

Bihar eginen dute Leitzako igerilekuan, aurten XVIII. aldian izanen duen igeriketa bilera, 16:30ean hasita.

Denok bat guraso elkarteak urtero antolatu ohi duen frogua hau, 12 urte arteko gaztetxoentzat prestatzen dute: «Froga baino, umeen parte-hartzea da garrantzitsua», nabarmendu zuten gurasoen ordezkariak. Bestalde, «Bengoak urtero urtero egiten duen lana», es-

kertu nahi izan zuten, «bera arduratzen baita antolatzeaz, zerrrendak egin, denborak hartu...», zioten. Bide batez oroitarazi zuten, igerian egin nahi dutenek, han bertan izena emateko aukera dutela, frogak hasi baino lehen.

Bi sailetan banatu dituzte aurtengoan adinak: 10 urte artekoak multzo batean, eta 11 eta 12 urteetakoak, bestean. Edozein moduz, parte-hartzaile guztiak izanen dute ateratzeko aukera. Eta saria ere bai.



laz, igerilariak prest. J. ASTIBIA

▶ **TOLOSALDEKO HITZA.INFO**

Eztabaida. Bidegorria inauguratu berri dute, zer iritzi duzu bere ibilbideari buruz?



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Alegia. AHTren aurkako akanpada Langaurren: 10:30ean kalejira tailerra; 14:00etan bazkaria; 16:30ean hitzaldia: *Liberte Jean Marc Robellan* (Accion directako preso), hizlaria Michel (Barna); 19:30ean hasierako asanblada; 21:00etan afaria; gero, trikitixa.

Amasa. Herritar talde baten Kultur Etxearen inaugurazio «herritar eta duina» 20:00etan. Ondoren afaria izango da. Izen-ematea, Kultur Etxeko atean.

Berastegi. Podologoaren bisita uztailaren 30ean izango da. Aurrez ordua hartzeko Gaztainondo elkartera jo behar da.

Tolosa. Baserritarrentzako diru laguntzak kobratzeko sistema aldatetaz informatzeko bilera 11:30ean EHNEko egoitzan (Nafarroa etorbidea 6).

Tolosa. Picos de Europa (Kantabria) mendi irteera antolatu du Alpino Uzturrek hilaren 23, 24 eta 25erako. Izen-ematea, elkartean (Gudari 5. 943 65 27 89).

Tolosa. Oargi mendi elkartek mendi irteera eta arroila jaitziera antolatu ditu hilaren 22tik 25era bitartean. 637 83 03 80.

Tolosa. Arantzazura peregrinazioa egingo dute hilaren 31n. Izen-ematea, San Frantzisko elizan.

Villabona. Santiotan, hilaren 28an, Txermin ikastolan egingo den jubilatuen bazkarirako gonbidapena jaso daitezke Biltoki elkartean. Gaur da azken eguna.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leitza. Gimeno, A. Elbarren 52. 112.
Tolosa. Santamaria, I. Nafarroa etorbidea 2. 943 65 45 10.

IRRATIA

Txolarre (FM 107, FM 101)
11:00-14:00. Tolosaldeko ahotsa: eguraldia, HITZA, AHTren aurkako akanpada Alegian, Julen Zelarain eta Eneko Arteaga Villabonako jaietaz, Magrebiar festa Ibarren, lehiaketa, disko eskainiak...
19:00. Errepikapena.
21:00. Arkako show.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Artean murgilduta

ZIZURKIL ▶ Iban Bujan gazteak irabazi du Elbarrenako jaietarako kartel lehiaketa; Batxilergo artistikoa egin ondoren diseinua ikasi nahiko luke



Iban Bujan gazte zizurkildarra «harrituta» agertu da kartel lehiaketa irabazita. JOXEMI SAIZAR

JOXEMI SAIZAR

Artearen alor guztiak ditu gustuko eta landu ditu orain arte: marrazketa, eskultura, diseinua, argazkigintza, dekorazioa... Batxilergo artistikoa ikasi du Donostiako Usandizaga institutuan. Argazkigintzan 1. saria eta diseinuan 2. saria irabazi ditu institutuan.

Selektibitatea egin zuen egun berean arrebak eman zion egunkari batean ikusitako albistea: Zizurkilgo Elbarrena auzoko jaietako kartel lehiaketa irabazi zuela

Iban Bujan gazte zizurkildarra ari gara. «Laz ere aurkeztu nintzen, baina ez nuen saririk jaso. Harrituta gelditu naiz aurren», azaldu dio HITZARI. Kartela

egun pare batean egin zuen. «Collage bat da. Testua askotan errepikatu eta zumizko saskietan bezala jarri nuen fondo gisa. Gero herriko harmarriaren argazkiaren erdia erantsi eta oso serio iruditzen zitzaidanez, testu nagusiko hizkiak era soltean idatzi nituen, tenperaz eta errotulagailuz». Sari gisa 150 euro jaso ditu udaletxean



Jaietarako kartel irabazlea. HITZA

eta irailaren hasieran herriko eta eskualdeko kaleetan ikus ahal izango da bere lanaren fruitua. «Kaleko paretetan erantsita ikusitakoan ez dakit zer inpresio egingo didan», esan du Bujanek. Gurasoak behintzat «pozik» omen daude eta lagun askok deitu diote zorionak emateko.

Batxilergoa eta selektibitatea gaunditu, artearen munduan murgildu nahi du Iban Bujanek: Santiagora dihoa udan —familia hangoa du— eta bertako diseinu eskolan ikasi nahiko luke, bestela Iruñean argazkigintza, dekorazioa eta diseinua.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN

Zorionak aita, ama eta Xubanen partetik. Muxu handi bat.

URTE ASKOAN

Zorionak guapisisisima!!! Zutaz ahaztu ginelakoan ala?? Ez zara gutaz hain errez librauko. Muxu pottoko-pottolo asko kariño!!!

HITZA, zorion agurren tartea
Urtebetetzek, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:
HITZAren egoitzetara: Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA Udaletxeko bulegoa - LEITZA
Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri. Mila esker!